

Irati Astondoa zeanuriztarra Euskal Herriko sega azpitzapeldun

11. orrialdea

San Justoko karobia kea dariola

Karobia abuztuaren 3an, zapatuan, goizeko 11:00etan isiotuko da, eta domeka eguerdian, kare bizia oka egiten hasiko da.

Moron de la Fronterako (Sevilla) Karearen Museotik etorriko da ordezkari bat aurten Zeanurira. Museoa 2011 urtean Gizateriaren Kultur Ondare Inmateriala izentau eban UNESCOk, eta bertako ardura-dunak igaztik hartu-emonetan egon dira Ipizki taldeagaz. **13. orrialdea**



Lemoako Arlonagusia futbol zelaia barriztatzeko lanak hasi dira

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

190

2013ko abuztuaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Areatza, Zeanuri eta Zeberion jaiak

Zeanurik, Areatzak eta Zeberio herriko jaiak ospatuko dabez abuztuan; andramariak, sanbartolomeak eta sanantolinak, hurrengo hurrengo.

Trikitixa eta txistuak izango dabe protagonismo berezia Zeanurin abuztuaren 15ean. Izan be, 17:30ean, Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketaren XXXIII. edizinoa eta, 22:30ean, Zeanuriko txistularien 45. urteurren jaialdia izango dira frontoian.

Areatzan be, ezin bestela izan, musikeak hartuko dau protagonismoa. Hemen Areatzako txistulariak bai, baina baita Areatzako Bandak edota Tanborradeak be

emongo deutsee Areatzako jaiak euren ikutu berezia. Aurten, Luis Iruarizaga Abesbatza eta lagunak 55 personatik gorako koroa osotuko dabe Hilario Eslavaren *Salve Regina* kantetako.

Zeberioko jaietako txupina hilen 29an izango bada be, urri lehenengoaren 2ra arte, San Antolin egunera arte luzatuko dira jaiak eta egunik handiena urri lehenengoaren 1a izango da.

5. 6. eta 7. orrialdeak



Areatzako txupina erraldoiakaz.

BEDIA

Bediako Incoesa enpresea hustutzeko ebazpena emon dau epaileak

Garagarrilaren 30ean, epaileak Bediako Incoesa lantegiko ondasunak bertatik ateratzearen aldeko ebazpena emon eban eta BEGITU zarratukeran, beharginak hori aurrera eroateko kamioia eta Ertzantza noz etorriko zain egozan.

Beharginak enpresa zuzendaritzeari ez hustutzeko eskatu eutsien eta erakundeai lagunduteko. Baita herritarrai deia luzatu eutseen be bertara lagunduten joateko, Incoesako lantegiak Arratian jarraitu daian.

Beharginak greba mugabakoan dagoz maiatzaren 27tik, enpresek Bediako lantokia zarratu eta lana Extremadurara eta Soriana eroatea ebatzi ebanetik. **6. orrialdea**

LEMOA

Auzolandegiak Lemoatxen

Eusko Jaurilaritzen eta Lemoako Udalaren ekimena da auzolandegia eta Lemoatx 1937 memoria historikoa errekuiperetako batzordeak "bat egin" dau honegaz. Garagarrilaren 18an, gazteak Iñigo Urkullu Lehendakaria eta Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren bisitea izan eben; baita Lemoako Udalaren ordezkari batena, Saioa Elejabarrieta alkatea buru zala. Gazteak Lemoatxeko lubaki sarea begibistan itxi eta bertan izandako baitailaren aztamak batzean ibili dira. Beste 20 bat gazte izango dira abuztuan Lemoatx tontoreko baseleiza mendi aterpe bihurtzen. **8. eta 9. orrialdeak**



LEMOA

Lemoako Bilduk Liburu Beltzaren II. kapituluak aurkeztu dau

Liburu Beltzan Lemoako Bilduk, 2007-2011 arteko legegintzaldian EAJ-PNVren kudeaketea salatzen dau. Oraingo honetan, 24.000 euro alkoholdun edarrietan, 48.000 euro kilometraje dietetan, eta kreditu txartel baten bidez justifikau bako 6.000 euro gastau izana ezagutarazo dau. Udal Artxiboari jagokonean, "sano egoera eskasean" egoala eta 85.000 euro pagau izan behar dabela, enpresa batek hori bere onera ekarteko jakinarazo eben Bildukoak. **5. orrialdea**



IGITIE

"VIA CAMPESINA" NEKAZAL MOBIMENTU INTERNAZIONALA

Bagileko 6 eta 13 bitartean "Via campesina"ren konferentzia internazionala burutu zan Jakartan (Indonesia). Esan beharra dogu ENHE-Bizkaia eta beste hainbat erakunderen bidez Euskal Herriko nekazariak presente egon ginala, arratiarron presentziagaz. Igitien sano garrantzitsua deritxagu nekazarien arteko alkartzeari, bai egoerearen diagnosiak egiteko baita burrukak eta lan ildoak finkatzeko. Nekazaritza sektorean, mundu mailan, % 75a baino gehiago andrazkoak dira eta aitagarria da horreetako porzentaje handi bat pobrezian bizi dala.

1993an sortu zan "Via campesina". Bertan, lau kontinentetako

alkarteak dagoz. "Via campesina" Afrika, Asia, Europa eta Ameriketako 70 herritako 150 erakundetiko gora osotuten dabe, guztira, 200 miloe nekazari inguru. Mobimentu autonomo, pluralista, multikulturala, inongo afiliazio politiko-ekonomiko bakoia da. Justizia soziala eta duintasun kolektiboaren bidea nekazaritza iraunkor eta lokalaren bidez bultzatzen dogu.

Berezkoa dau natura eta herrien suntsitzea aurrera erooten daben agronegozio eta multinazionalen aurkako jarkerea.

"Via campesina" sortu zanetik, beste bost izan dira egindako konferentziak; Tlaxcala (1996), Bangalore (2000), Sao Paulo (2004),

Maputo (2008) eta orain dala ia hilabete bi, Jakartan. Bertan, hiru bloke bereiztu daikeguz: batetik andren asanbladea, bestetik gazteen asanbladea eta azken egunetan batzar orokorra. Nekazaritza eta elikadurearen egoerearen hausnarketea eginda hurrengo lau urteotako plangintzak eta nondik norakoak zehaztu eta hurrengo urteetarako burrukak finkatuta lotu dira.

Esan beharra dago, eta ohore handia da guretzat, 2017ko konferentzia internazionala Euskal Herrian egingo dala. Informazio gehiago www.viacampesina.org.

Globalizau daigun burrukea, globalizau daigun itxaropena.



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00. S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

Garagamilaren 29tik abuztuaren 4ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00-09:00 Guarratxena. Amorebieta.

Abuztuaren 5etik 11ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09

22:00-09:00 Goiria-Montoya. Amorebieta.

Abuztuaren 12tik 18ra

N. Arieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1

Tel.: 94 631 30 18

22:00-09:00. Melero. Amorebieta.

Abuztuaren 19tik 25era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00-09:00 Sarasketa. Amorebieta.

Abuztuaren 26tik urri lehen. 1era

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22

22:00-09:00 Iruarrizaga. Amorebieta.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era

orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15

eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,

14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15

eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,

16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

*** Adi udako ordutegiari**

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketeta: Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaija Ozerinjauregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendieta eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEHIOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Alkondara



Jatorri arabiarra dauan berba hau gizonezkoen garritik gorako erropari esateko erabilten da. Gure artean alkondara edo arkondara berbak erabilten doguz (alkondarea, arkondarea, agoskatuta); batuaz, barriz, alkondara esaten da. Alkondara berbeagaz be agertuten jaku aurreko zenbakiko leihotxoan azaldu genduan barren (alkondara-barren). Adibide bat: Zuri zelan gustetan jatzuz gehiago alkondara-barrenak, praktetan sartuta ala kanpotik?

ERETXIA

Zezenketak, ondare kulturala ala animalianako krudelkeria?

"Bullfighting is not a sport, it's a tragedy"
Ernest Hemingway

Ustez Hemingwayrena dan epigrafe honeri begiratu ezker eta tragedia berbearen esangura bilatzen badogu konfidantzazko hiztegiaren baten, eta ezagutuko ez bagendu autoren tauromakia zaletasuna, ikusiko geunke idazle estadubatuarrak egiten dauan festaren deskribapena anbigua eta moraliki neutroa dala. Horrexegaitik akaso, aukeratu dot esaldi hori, lerro gitxi honeek hasteko, moralak kontu pribadu eta norbanakoa dalako, hain zuzen, nahiz eta giza balioak eta partekatutako imaginarioak busti-busti egin.

Dana dala, zezenketen kontrako protestak, animalianako krudelkeriaren kontrako mobimentuen ikusgarritasunak eta leku batzuetako ondare kultural edota festa moduan defendiduten dabenak, zezenketak gai publiko legez ikusi arazoten deuskue, batez be, zezenketak krisi sasoi honetan, altxor publikoa erabilia sustatu edo finantzatzen diranean.

Zer da orduan? Gai publikoa ala pribadua?

Argi dago diru publikoa erabilten bada, gai publiko bihurtzen dala; baina, diru pribadua bada, orduan gai pribadua da? Ez da erreza jakitea. Barriro be joko dot gaiaren ikuspegi moralera jaien inguruko konparazio bategaz. Duda barik, animalia bateri eragindako sufrimentua inmoraltzat jo daiteke: *dumping* ekonomikoa, giza eskubideen bortxaketak –laneko zein ingurumenekoak– erabilten dituen enpresak edo Euskal Herri osoan eta estadian etxe kaleratzeak egiten dituen entida-



CARLOS VARGAS TAMEZ

Soziologoa. Deustuko Unibersidadeko irakaslea

estropadak, pelota partiduak edo herri kirolak?

Akaso, beste dimensio bat hartzean dau gaiak ondarea eta praktika batzuen izaera sinboliko, kultural eta identitatezkoen artean aukeratu behar danean. Izan be, praktika honeek euskal identitateagaz estu lotuta dagoz, tauromakia Espainiako identitateagaz lotuta dagoan moduan. Orduan beste elementu bat sartzean da jokoan, elementu politiko eta ideologikoa, kulturalaz gainera. Akaso errezago ete da gure identitetik urrin dagoana kondeneatea, Bilboko meskitak berbarako, guretzat "naturala" dana baino? Zerk egiten deusku gauza baten alde edo kontra mobilizatea? Noz bihurtuten da publiko gai bat?

Zalantza barik, eta euren emoitza kontuan izan barik, Karrantzan edo Zestoan egindako herritarren ariketak, publiko bihurtzen dan gai eztabaidagarri baten –demokraziaren funtsa– eta herri bateri jagokozan asuntuen ebaztien parte hartzea, hain zuzen, adibide pragmatikoak dira, zezenketen bilakaerea baino harago doazena. Pentsau daiteke badagozala parte hartzea alde batera itxi behar dituen ebazti batzuk, ezin diranak eztabaidatu? Ez dakit, baina burura jatortaz gorroto eta biolentziaren apologia kasuak. Erreferendum bat egingo geunke indarkeria sexistearen kondena behar dogun ebazteko, edo homosexualitatearen gainean?

Edozelan be, zezenketak, erreferendumak edo gobernu bandoak daukaguzan demokrazia mota eta herritarren partaidetza eta gai publiko eta pribaduen arteko marra meheak berpentsatzera konbidatzen gaitue, baina batez be, gogora ekarten deuskue beharrezkoa dala herritartasun aktiboa izatea, eretxiak adierazotea, mobilizatzea eta alkarriketa eta esangura eta zentzua negoziatuko prozesuak zabaltzea kontu publiko guztietarako... eta pribaduetarako be bai.

Erredakzinoan itzulia

BATZ 50 URTE
BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)
**IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA**

LUMATUTEN**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA****Saldaingo
txakurra**

A ikomen Zeberion darabilgun esakera zahar hau: "Saldaingo txakurrarena pasatu jako urlari". Eta, zer pasatu jakon ba Saldaingo txakurrari? Ba, aiko. Egun baten, Saldaingo txakurra gogait eginda egoan bere etxean belu bazkalduteagaz eta Uriondora joatea pentsau eban, han tertzioz bazkaien ebelako. Txakur hori Uriondorantza joian inon diran txakur-amesak egiten adurra dariola. Baina Uriondora heldu, atek jo eta bazkaria eskatu ebanean, ene! danak egozan bazkalduta eta isil-isilik bazkal osteko bekanekoa egiten. Eaurt egin eta Saldainera bueltau zan oraindino denporaz ebilelakoan. Baina, bai zera, bere etxeokak be bazkalduta ez ebazan aurkitu ba! Txakur hori, bazkari barik geratu zan eta buztana hankartearen dala estarian ostendu eban bere burua tripak orroa baten. Fetxoria bardina pasatu jakon Zeberio Artzubiko txakurrari be. Artzu-

biko txakurak Solaxira egin eban haronakoa, eta hortik esakera hau be: "Artzubiko txakurrarena pasatu jako". Zeberion ezeze, haragoan be ezagutzen da esakera hau. Villaro edo Areatza ganetxoan, Ellakuri auzunea dago eta Ellakuriko txakurrari be beste hainbeste pasatu jakon. Ellakuriko txakurra klausurako monjen komentora joan zan egurdarteko hamabi-hamabietan bazkaien ebelako. Baina monjok, garizumako zeozergaitik-edo, aurreratu egin eben barau-bazkaria eta txakur horrentzat bazkari-usainik be ez zan lotu. Ellakurira joan zan bueltan, eta aldarra gora nekatuta-edo, belu egin jakon bere etxera orduko be eta bazkaldu barik geratu zan danagurako txakur galgu hori. Eta, hortik esakera hau be: "Ellakuriko txakurrarena pasatu jako". Arratiatik kanpora be entzuten da pasadizu hau. Abadiño partean, Urkiolara bidean dago Gatzaieta baserri ospetsua eta hango txakurra be bazkaldu barik geratu zan eta birriteko aldiz gainera. Batean, Intzalde baserria egin eban joan-etorria, baina belu, eta bestean, Urkiolako erromeria egunean joan zan hondakinak jateko diteagaz, baina, gazteria, gosebera eta entrama onekoa izaten danez, ogi birrinik be ez eben itxi zorutik eta txakurra usainka-usainka, agoan txuagaz geratu zan, jaki barik. Gatzaietara bueltatzean bazkaldu-akabatuta egozanez, tripazorriagaz joan zan apatxotsean mundurik aramaiao. Hortik esakera hau be: "Gatzaietako txakurrarena pasatu jako". Gaur egun be, pasatu egiten dira holakoak, konformidadean ibili ez egiteagaitik.

ZERTZEAN**JANIRE LOPEZ**

Z ure sudurrean barrure egingo baneu bihotzeraino helduko nintzateke akaso geltokiz geltoki eta hozka egingo neuskizu bazter guztietan eta odol artean lorrindu. Baina alboratuko dodaz albeoloak, zanak, giharrak eta azkenekoz egon nintzanean baino estuagoa emoten dau orain, inozentzia trabatuta dago eskailera metalikoetan, EZ gora eta EZ behera. Errepideak zeharkatzen dau orain alderik alde eta albo bietara begitu behar da gurutzatu baino lehen musika-bandak zapaldu ez zaitzan. Tronpeten antzera entzuten dira zure taupadak nonahi eta gorri behar leukeena urdina da ETA ALDERANTZIZ.

Nirean tripetaraino joan ahal da landatan zehar kilkerak baino ez dozuzela entzuten eta han be berbak ez dira dena azaltzeko gai izango baina badakit ez dozula kontrakorik espero. Eta zaldiak baikin, galapan, alkarregaz joan ahal gara azken geltokiraino eta maitasun hau maite irauten dauan bitartean. Eta kanporako bidea erraz dekozu arnasa hartzeko estutasuna igarten dozunean, lapurrei bildurrik ez ta atea beti izaten dot zabalik.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

A rgazki honetan, Jürgen Lange gure laguna Baltikoan agertzen da BEGITU kamisetan aldean daukala. Jasone Aldekoak bialdu deusku argazki freskagarri hau argazki lehiaketan parte hartzeako.

Momentuz, Jasone Aldekoak eta Yolanda Corderok bakarrik bialdu dabe argazki bana, beraz, saria lortzeako aukeren % 50 dauka bakotzak. Gogoratu, bakotzak hiru argazki bialdu daitezala lehiaketa honetara.

Animau zaitezte eta bialdu zuen 2013ko oporretako argazkirik onenak begitu@topagunea.com helbide elektronikora. Astegoiaren bat landetxe baten da saria, oporrak amaitutakoan opor itxurea daukan zapatu-domeka bat disfrutetako.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa
hagin klinika

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Uriagaitia Aldekoa
Odonatologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Biokala
T. 94 631 50 39
Nafarroa Zirkulari 101
R.F.S. 21/06

**Ametzola
Landetxea**

Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

LEMOA

Lau urtean, kilometraje dietetan, 48.630 euro gastatea leporatu deutso Bilduk EAJ-PNVri

EAJ-PNV agintean egon zanean, legegintzaldi baten, kilometraje dietetan 48.000 eurotik gora gastatu zituala, eta Bilduk legegintzaldi erdian, 750 euro gastatu dituala kontzeptu bardinean esan eban Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak (Bildu) garagarriaren 24an prentsurrean.

Erredakzioa

Lemoako Liburu Beltzaren II. Kapituluak aurkeztu eben bertan Lemoako alkateak, alkateordeak eta Bilduko zinegotzi batek. Lemoan EAJ-PNV agintean egoaneko us-tezko irregularitasunak jasoten ditu Liburu Beltzak.

"Kudeaketa negargarria egin dabe danon diruagaz eta sarritan interes pribaduak egin deutsee mesede" Bilduko araberak. Horren adibide, 2007-2011 artean 24.000 euro gastatu zituala EAJ-PNVk alkohol-dun edarietan, eta kreditu txartel baten bidez ziritu bako 6.000 euroko gastuak be-egon zirala salatu eben.

"Gainsoldata itxura"ko dietak

Lemoako Liburu Beltzaren II. kapitulu honetan, EAJ-PNVren aginte sasoiari 7 pertsonen sei hilean behin 3na mila kilometroko dietak aurkezten zituala jasoten da; horreen ar-

tean, kargu politiko bi dagoz. "Bildu agintean dagoanetik, hiru langilek bakarrik pasetan ditue kilometraje dietak, eta kargu politiko batek be ez". Lemoatik Amsterdamera joan-etorria egiteko distantzia da 3.000 kilometro. Bilduko araberak, "gainsoldata itxurea" daukie gastuok; izan be, beti kopuru bera izaten zan, eta sarritan jakin bategaz.

Alkohol-dun edarietan 24.000 euro gastatu zituan lau urtean Udalak aurreko legegintzaldian. Dirua "hornitzaile desbardinak" pagatu zituala esan eban Elejabarrietak. Gainera, ziritu bako gastuak be egon ziran. "2009ko abuztuaren, fakturarik bako 1.100 euro" gastatu zituan Udalak, eta "abuztuaren Udala geldirik dagoala" gogoratu eban Aitor Erazukin alkateordeak. Bilduko araberak, ziritu bako beste 6.000 euro pagatu ziran kreditu txartelen bidez. "Ezin dogu jakin zer pagatu zan txartel horregaz; alkatearen txartela nominala da, eta bankuak

ez deusku informazio hori emoten". Hori jakiteko epai agindu bat beharko leukiela esan eban Erazukinek, eta "momentuz" ez daukiela epaitegiatar joteko asmorik.

Udal artxiboa

Artxiboa oso egoera eskasean topatu eta "85.000 euro gastatu behar izan doguz bere onera ekarteko" esan eben. Lan horreek horretara dediketan dan enpresa batek egiten dituala esan eban Erazukinek. Eta oraindino gastu gehiago egon daitezke artxiboari lotuta. Izan be, 2002tik eta 2011ra bitartean artxibozain bat euki eban kontratuta Lemoako Udalak. Kontratua irregularra zala eta artxibozainak epaitegiatar eroan dau kasua, 35.000 euro eskatuz.

Bildukoak ez deuskie honek irregularitasun guztioneek aurreko alkateari leporatzen "erantzukizuna EAJ-PNVrena da, ez persona batena. EAJ-PNVk interes pribaduak asetze-



Aitor Erazukin, Saioa Elejabarrieta eta Jesus Mari Fernandez.

ko erabili dau Udala. Horixe da euren kudeaketa eredu. Hemen bakarrik ez, beste leku batzuetan be gertatzen da" esan eban Elejabarrietak.

"Ez da EAJ-PNVren estila"

Bilduk, Lemoako Liburu Beltzaren I. kapituluaren, irregularitasun batzuren barri emon ostean, Jabier Beobide alkate ohiak alderdikide kameta en-

tregau eban maiatzaren 12an.

Itxaso Atutxak, Bizkaiko Buru Batzarreko presidentek "hori ez dala EAJ-PNVren kudeaketa estila" eta "irregularitasun zantzuak egon ezkerre bakoxtari jagokozan ardurak eskatu" beharko litxakiozala esan eban. Andoni Ortuzar Euskadi Buru Batzarrekoak barkamena eskatu eutsen lemoaztarri.

ZEANURI

Kuadrilak protagonista jaietan

Hiru zubietatik egiten dan kalejireak hasikerea emongo deutse Zeanuriko jaiak.

Erredakzioa

Tartean, kuadrilen jokoak eta herri kirolak, sukaldari lehiaketak eta pelota partiduak. Andra Mari egunean, Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketaren XXXIII. edizioa jokatuko da Zeanuriko eta Zeanu-

riko txistularien 45. urteurrenaren ospatuko dabe frontoian jaialdia batez.

The Jeloskors eta Vendetta taldeak kontzertuak eskeiniko dabez. Erromeriak be ez dira faltauko Triki ta Ke, Luhartz eta Lotxo taldeen eskutik.

Abuztuak 13, martitzena

18:00etan, umeen futbito partidua.

19:00etan, fronteniseko finala.

Abuztuak 14, eguaztena

Gazteen gaua

14:00etan, txupina bota eta pregoia. Ondoren kalejireak hiru zubietatik herriko txistulari, trikitilari eta Buruhandiakaz.

Triki poteoa herrian zehar.

17:00etan, pelota partiduak frontoian.

18:30etan, kuadrilen jokoak plazan.

22:30etan, kontzertuak The Jeloskors eta Vendetta taldeakaz. Ondoren erromeria Triki ta Ke taldeagaz.

Abuztuak 15, eguena

Andra Mari Eguna

11:00etan, kalejireak herriko txistulari eta trikitilariakaz.

11:30etan, meza nagusia Andra

Mari parrokan.

13:00etan, kuadrilen jokoak plazan.

17:30etan, Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketaren XXXIII. edizioa.

19:00etan, kuadrilen arteko herri kirolak (nagusiak).

22:00etan, Zeanuriko txistularien 45. urteurrenaren jaialdia frontoian.

Abuztuak 16, barikua

San Roke Eguna. Sukaldarien eguna

11:00etan, kalejireak herriko txistulariakaz.

11:00etan, sukaldari lehiaketa.

11:30etan, animen meza parrokan.

17:00etan, pelota partiduak. Esku-

pelota mutilak, pala neskek.

22:30etan, play-back-a plazan.

23:30etan, erromeria Luhartzegaz.

Abuztuak 17, zapatua

Umeen eguna

11:00etan, kalejireak txistulariakaz.

11:00etan, umeen parkea plazan.

12:15etan, maratoni txikia.

12:30etan, jubiladuentzako barauskaria eta Aitamien Eguna.

13:00etan, bikote lasterketa (nagusiak).

18:00etan, herri kirolak (umeak) eta kuadrilen mozorro txapelketa.

22:00etan Zeani Antzerki Taldearen emonaldia.

23:00etan erromeria Lotxogaz. Ostean, hiru zubiak herriko txistulariakaz. Txokolatea hartuta amaiera emongo jakie jaiak.



Zeanuriko gazteak sokatiran.

AREATZA

Kaleak beteteko egitaraua
San Bartolome jaietan

Abuztuaren amaieran, sanbartolomeetan, Areatzako jentek eta bertara hurreraten diranak herriko kaleak eta tabernak hartuko dabez ondo pasetako.

Erredakzioa

Bederatzi egun eta 50 ekintza prestatu dabez guztira. Erraldoi eta Buruhandiak, Areatzako Txistulariak, Areatzako Banda, Areatzako Maioretak, Areatzako Tanborradea eta Tanborrada Txiki ez dira faltauko urtero jaigiro ederragaz daukien zitara.

Aurten umeentzako programazio osoa eta parte hartzaileagoa egin gura izan dabe jai batzordekoak eta urtean zehar egindakoak lotuta dagoz tailerrak. Aitatzekoak be badira, Ismael Madariaga eta Alfredo Garaitaonandia herriko pelotarien omenez prestatutako pala eta zesta partiduak. Edo munduko herrialdeak batzeako asmoz, Munduko Janak, mundu zabaleko plateraz osotutako herri bazkaria.

Gazteak, play back lehiaketan, Gaztetxeko kontzertuetan, Beat Box, Break, Rap eta Reggae erakustaldian, Mar-Is-Kal Djai-gaz festan eta Eskean Kristö, Governors eta Disc Breakers-en kontzertuetan batez be disfrutauko dabe iluntze-gauetan.

Abuztuak 23, barikua

14:00etan, txupina. Areatzako Erraldoi eta Buruhandiak, Areatzako Txistulariak, Areatzako Banda eta Bizkaiko Gaiteroak.

18:00etan, Ehunzango batukadea.
20:00etan, Salbe herrikoa, jarraian Hilario Eslavaren *Salve Regina* Luis Iruarizaga Abesbatzak eta lagunak.
23:00etan, erromeria Trikiogaz.
24:00etan, XX. Play back lehiaketea eta ondoren erromeria.

Abuztuak 24, zapatua

06:00etan, mortero jaurtiketea.
07:00etan, txistularien kalejireia.
11:00etan, kalejireia Albokale taldeagaz. Erraldoi eta Buruhandiak.
11:30ean, meza nagusia.
12:30ean, Ohorezko Aurrekoa.
12:45ean, harri zulatzaileak.
14:00etan, poteoa Albokaleguz.
18:00etan, eskupelota partiduak. Gazteak eta nagusiak.
22:00etan, kontzertua Furun eta Gari. Zubizarra plazatxoan.
23:30ean, erromeria Triki ta Kegaz.
03:30ean, txokolatea. Presoen aldeko txosnak antolatuta.

Abuztuak 25, domekea

13:30etan, Makailao Lehiaketearen aurkezpena.
17:00etan, Mus Txapelketea Batzokian.
20:00etan, kale antzerkia Malas Compañías taldearen *Orsai* antzezlan, Añilbarro parkean.
22:30etan, Areatzako Banda.
24:00etan, kontzertuak Gaztetxean.

Abuztuak 26, astelehena

11:00etan, animen aldeko meza.
12:00etan, umeen jantzak. Areatza, Dima eta Zeanuriko taldeak.
13:30etan, adinekoentzako kopautxoak.
17:00etan, Briska Txapelketea Uparar Jubiladu Elkarteak antolatuta.
19:30etan, musikea adinekoentzat.

Abuztuak 27, martitena

11:00etan, orientazio tailerra. Altxorraren bila.
14:30etan, munduko janak. Herrialde desbardineta janariak.
16:30etik **18:30**era, arte tailerra. Itxurdaldutzea, Karetagintzea, Eskulan tailerra eta Zeramika tailerra.
19:30etan, umeen play back-a.

20:30etan, disko festa umeentzat.

22:30etan, Areatza kantuz. Euskal abestiak plazan.

Abuztuak 28, eguztana

13:30etan, Paella Lehiaketearen aurkezpena.
16:30etan, mahai jolasak umeentzat. Xake, partxis, twister, ping-pong.
19:00etan, Beat Box, Break, Rap eta Reggae erakustaldia.
20:30etan, gazteentzako afari-merendea Gaztetxean.

Abuztuak 29, eguena

11:00etatik **13:30**era, mobimentu tailerra. Molto motorrak, patinak, Zirku tailerra.
17:00etan, Tute Txapelketea Motxo tabernan.
17:00etan, futbito triangularra.
20:30etan, Tortilla Lehiaketearen aurkezpena.
21:30etan, afari herrikoa.
23:00etan, Mar-Is-Kal Djai-gaz festa.

Abuztuak 30, barikua

11:00etan Bizkaiko Gaiteruakaz ka-

lejireia. Areatzako Erraldoi eta Buruhandiak.

11:30etan, paseoa bizikletaz. Iturrimorro txirindulari taldeak antolatuta.
12:00etan, Zuresku alkarte, 25 zurzko jostailu adin guztientzat.
17:00etan, pelota tailerra.
18:00etan, pala eta zesta partiduak. Ismael Madariaga eta Alfredo Garitaonandiarri omenaldia.
20:00etan, poteo rock. Orkestra taldeagaz.
22:30etan, kontzertuak Eskean Kristö eta Governors. Gero Disc Breakers.

Abuztuak 31, zapatua

11:00etan, Bizkaiko Gaiteruakaz kalejireia. Areatzako Erraldoi eta Buruhandiak.
18:00etan, Tanborrada Txikiren kalejireia.
22:30etan, kuadrilen kalejireia. Astondoa Piroteknia, Areatzako Maioretak eta Areatzako Tanborradea.
24:00etan, erromeria Laketegaz.
02:00etan, jaien agurra, azken txupina eta kalejireia Areatzako Tanborradea eta Areatzako Maioretak.

BEDIA

Incoesa hustutzeko agindua
emon eban epaileak

Incoesako beharginak eta arratiarrak enpresa kanpokaldean.

Erredakzioa

Bediako lantegitik gauzak ateratzeko asmoa eukala enpresak eta arratiarri hurreratu eta euren burrukan laguntzeko eskatu eutseen beharginak garagarriaren 29an. Lantegia ez

hustutzeko, beharginak gau eta egun egon dira bertan. Hile bitik gora daro beharginak greba mugabakoan, maiatzaren 27tik, enpresak Bediako lantokia zarratu eta lana Extremadura eta Soriara eroatea ebatzi ebantetik. Lanpostuak mobiduteaz gainera,

soldata murrizketa handiak planteetan dauala enpresek be salatu eban beharginak garagarriaren 19an egindako agerraldian. Garagarriaren 30ean epaileak Incoesa hustutzeko agindua emon eban, beharginen ordezkarien arabera.

"Bediako lantokian dagozan produktu amaitu eta ez amaituak atera gura ditue. Amaituta dagozanak saltzeko eta amaituta ez dagozanak beste nonon amaitzeko. Baina ez deusegu itxiko, gure lanpostuak defendatuko doguz" esan eban beharginak agerraldian.

Garagarriaren 30ean zenbaki hau zarratukeran beharginak epailearen agindua betetzeko Ertzaintza noz etorriko zain egozan. "Gu be enpresearen parte gara. Bizitza osoa emon dogu Arratiako lantokian. Arteta sendiak, Arratiakoak eurak be, gure esfortzuarri esker lortutako mozkinak egin ditue Soria eta Extremadurako plantak eta hara eroan gura dabe beharra orain" salatu eban beharginak.

Enpresako zuzendaritzeari lantokia ez hustutzeko eskatu deusie eta hori lortzeko erakundeai be laguntzeko.

EH Bilduren alkartasuna

EH Bildu koalizioak babes eta alkartasuna adierazo eutsen beharginai eta "lantegiaren hustea ekiditeko langile harresiagaz" bat egingo ebalu adierazo eban. Maribi Ugarte-buru eta Arri Zulaika biltzarkideak eta Asier Arana batzarkidea "Incoesako lantegiaren hustea eta Bizkaiko ehun produktiboaren defentsan" gainean egin eban berba garagarriaren 30ean, Incoesan bertan.



ZEBERIO

Txubel jaietan

Hile honen amaieran hasiko dira zeberioztarrak sanantolinak ospatzen, txupina hilaren 29an botako dabe, jaietako egun handia urri lehenengoaren 1a izango bada be.

Erredakzioa

Zezen mekanikoak, batukadeak, antzerkiak eta pailazoak barre batzuk egiteko aukerea bermatuko dabe jaiotan.

Kirola egiteko aukerea be ez da faltauko eta urri lehenengoan Zeberio Karran lasterketearen V. edizioa izango da.

Gastronomiak be bere protagonismoa edukiko dau eta txahal erre dastatu ahal izango da hilaren 29ko herri afarian, patata tortilla eta makailao txapelketak egongo dira, indababa jana lagun artean eta hainbat poteo musikeak lagun-duta.

Kontzertuak jagokienean, En Tol Sarmiento, Distorsion eta Gora Herrira taldeak egongo dira eta Zazkel taldearen aurkezpena izango da. Erromeriak, Argi, Iker eta Izarra, eta

Oxabi taldeak joko dabez.

Abuztuak 29, eguena

17:00etan, eskupelotea. Zeberioko gazteak.

19:00etan, jaien hasikerea. Txupina, Argi, Iker eta Izarra taldea. Txubel eta Buruhandiakaz.

21:30etan, herri afaria, txahal erre.

23:00etan, erromeria Argi, Iker eta Izarra taldeagaz.

Abuztuak 30, barikua

11:00etan, txirrindulari martxea umeentzat.

12:00etatik **14:30**era, eta **17:30**etik **20:00**etara jolas parkea. Puzgarriak, aerogiroa eta zezen mekanikoa.

20:00etan, batukadea.

22:00etan, disko festa umeentzat. Oxabi taldea.

23:30etan, Zazkel taldearen aur-

kezpena.

24:00etan, erromeria Oxabi taldeagaz.

Abuztuak 31, zapatua

11:00etan, Asel Ozerinjuregi XIX. Memoriala. Txirrindulari lasterketea. Kadeteak.

12:30etan, kalejireia. Zeberioko Musika Eskolako musikari gazteak.

14:00etan, Patata tortilla eta Makailao Txapelketan platerak aurkezteko ordua.

17:00etan, umeentzako jolasak. Altxorraren bila.

19:30etan, poteoa Orkestra taldeagaz.

22:30etan, kontzertuak: En Tol Sarmiento, Distorsion, Gora Herrira.

Urri lehenengoak 1, domekea

11:00etan, Zeberio Karran V. Las-

terketea. Gazteak.

11:30etan, Zeberio Karran V. Lasterketea. Nagusiak.

12:30etan, sari banaketea.

13:00etan, bits jai.

13:00etan, Laura Orueren aldeko XIV. urteurreneko mezea.

13:30etan, poteoa. Zeberioko Musika Eskolako musikari helduak.

18:30etan, esku pelota partiduak. Jabier Uriaren X. memoriala.

Izei Gomez / Erik Fernandez

Goñi-Otxandorena / Agirre-Zabala.

21:00etan, Tartean konpainiak *Lingua Nabajorum* antzezlan.

Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreakaz.

Urri lehenengoak 2, astelehena

12:00etan, mezea eta ondoren barauskarria herriko plazan zeberioztar edadetuentzat.

13:00etan, poteoa trikitixegaz. Koldo eta Isak.

15:00etan, indababak lagun artean.

18:30etan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren *Sentitu, pentsatu, ekin* ikuskizuna.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

LEMOA

Informazio Orokorreko Batzordeak urrietan hasiko dira

Erredakzioa

Informazio Orokorreko Batzordeak sortutea ebatzi eban udalbatzak garagarriean Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Lehenengo batzordea urri lehenengo bigarren eguaztenean izango da. Organo honek "lehenengo udalbatza informatiboan egitura bardina izango dau" eta "ohiko udalbatzako gaien aurkezpena eta eztabaida egiteko esparru bat izango da" Lemoako Udal Gobernu Taldeak jakitera emon dauanaren arabera.

Aprileko udalbatzan EAJ-PNV

eta PSE-EEren aldeko botoakaz eta Bilduren kontrako botoakaz legegintzaldi hasieratik hilero egiten ziran udalbatza informatiboak bertan behera geratu ziran. Udalbatza honeen helburua hurrengo eguaztenean ospatuko zan ohiko udalbatzako gaiak aurkeztea eta eztabaidatzea zan eta udalbatzok kendutakoan, "lemoaztarrai herriko bizitza politikoan parte hartzeako aukerak gixituta geratu jakiezan" Udal Gobernu Taldearen eretxian. Dana dala, batzar informatiboak berreskuratzea lortu dabe Informazio Orokorreko Batzorde izenpean.

LEMOA

Harrobia zarratuta

Erredakzioa

Lemoako Udalak Peña Lemonako harrobia betetzeko lanak bertan behera itxi ditu behin behineko, ingurumen teknikariaren txostenak adierazoten daualako enpresa ustiatzaileak kontrol baldintzak jarraian urratu dituala. Hori dala eta, Udalak isurtegiko ustiatze baimena eten dau dekretu bidez eta harrobi zaharra zarratuta egongo

da baldintza guztiak beteten dirala bermatu arte. Udaletik adierazo dabenez, ustiapenerako kontrol baldintzak ez dira bete eta Udal Gobernuak oso larritzat jo dau araudi urraketa hori.

Hartutako neurriak udal ingurumen teknikariaren txostena hartu dau oinarri. Harrobiaren betete lanak baimentzen dituan akordioak isurtegi sartzearan diran gaien kontrola zehazten dau. Batetik, kontrol bisuala gaia isurtegi sartzearakoan eta harrobian isurtzerakoan. Bestetik, "sarrera erregistro" baten beharra; hau da, harrobira sartzearan diran gai mota, data, ordua eta garraio ibil-

gailua jaso behar dira, beste datu batzuen artean. Lurtarri enpresa ustiatzaileak baldintza bi horreek modu jarraian urratu dituala dino udal teknikariaren txostenak eta maiatza, bagila eta garagarrilean hainbat egunetako ikuskaritza lanak aitatzen ditu dokumentuak.



DIMA

Legegintzaldiaren bigarren urteurreneko ekitaldia antolatu eban Arratiako EHBilduk

Erredakzioa

Garagarriaren 7an, Dimako plazan Arratiako alkate, zinegotzi eta herritarrak bildu ziran, legegintzaldiaren 2. urteurreneko ekitaldian. Balantzea eta hurrengo urte bietarako helburuen barri emon eban herrietako ordezkariak. Ekitaldiari amaierara emoteko Laura Mintegi EHBilduko legebiltzarki-

deak hartu eban berbea arratiarrai datozen urte bietan be modu



Ekitaldi amaieran ateratako argazkia.

ARRATIA

Erromesak Arratiatik Begoñara Andra Mari bezperan

Erredakzioa

Andra Mari egunaren bezperan, abuztuak 14, hainbat arratiar oinez abiatuko dira Bilbora Begoñan mezea entzuteko. Han, lehenengo mezea, goizaldeko

04:00etako, entzungo dabe ibiltariak lau orduko ibilaldia egin ondoren. Atzenengo urteotan, arratiarrak ez dira lehenengo moduan batzean Igorren alkarregaz joateko, erromesak baxotxa bere aldetik joaten dira.

AUZOLANDEGIAK

Auzolandegiak Lemoatxen, gerraren arrastoak berreskuratzen

Eguzki galdatan, aturra hartuta, Euskal Herriatik bertatik, zein urrineko herrialdeetatik etorritako gazteak Lemoatxeko lubaki sarea begibistan itxi eta bertan burukatutako bataila gogorraren aztarnak batzean ibili dira garagarriaren 17tik 31ra. Bataila honetan mila gudari eta miliziano baino gehiago hil ziran eta trintxerak, bonbak egindako zuloak eta batailaren beste arrastoak errekuperetan ibili dira Turkia, Errusia, Taiwan, Alemania, Belgika eta beste leku batzuetatik etorritako 20 bat gazte. Beste 20 bat gazte izango dira abuztuan Lemoatx tontorreko baseleiza mendi aterpe bihurtzen.



Iñigo Urkullu Lehendakaria, Cristina Uriarte, Saioa Elejabarrieta, Mikel Garcia eta Esti Carracedo.

Erredakzioa

Eusko Jaurilaritzaren eta Lemoako Udalaren ekimena da auzolandegia eta Lemoatx 1937 memoria historikoa errekuperetako batzordeak "bat egin" dau honegaz. Auzolandegiok Eusko Jaurilaritzaren Auzolandegiak programearen barruan dagoz. Progama hau 29 urtetik gora daroa antolatzen Eusko Jaurilaritzaren Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaek.

Lemoatxeko Auzolandegiak hasi eta bigarren egunean, garagarriaren 18an, gazteak Iñigo Urkullu Lehendakaria eta Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza

Politika eta Kultura sailburuaren bisitea izan eben; baita Lemoako Udalaren ordezkari batena, Saioa Elejabarrieta alkatea buru zala. Lehendakariak, gerrea hasi zaneke 77. urteurrena data egokia zala gerra harek desegindako "bizikidetzaren, tolerantziaren eta errespetuaren kultura" berreskuratze eta horreen gainean etorkizuna ereigiteko esan eban Lemoatxen.

Obus bat topau dabe

Lehenengo astean, Aranzadi alkatereko Asier Izagirrearen gidaritzapean, lubakietako sasiak kentzean ibili ziran Auzolandegikoak eta behin

sasiak kenduta, bigarren astean, metala detektetan daben makinak ibili zituen bataila haretako metraila zatiak eta beste aztarna batzuen bila. Garagarriaren 23an bertan topau zituen lehenengo zatiak. "Gaur heldu gara lur onera eta detektorea pasau dogu lehenengo aldiz: bala-zorro bat eta granada baten zati bat agertu dira" azaldu eutsan BEGITURI Asier Izagirre Aranzadikoak.

Aurkikuntzarik handiena baina, garagarriaren 26an egin eben. "Obus bat topau genduan eta Ertzaintzari deitu behar izan gentsan. Kasualdidez, alkatea bertan egoan eta berak ebatzi eban Ertzaintzari deitzea. Ertzaintzak karga bat ipini eta leherlarazo egin eban obusa" dino Aranzadikoak.

Behar honeek leku askotako 18 eta 25 urte bitarteko gazteak egin ditue borondatez. Partaideak Lemoako eskoletan hartu dabe ostatu.

Lemoatx leku estrategikoa 1936ko gerran

1937 urte hasieran Mola jeneralaren tropak Bizkaia menpean hartzeako kanpainari ekin eutsien. Momentu haretan abertzale eta errepublikarrak iparraldean eukien eremu bakarra zan eta sano puntu garrantzitsua gainera, Bilbo eta inguruatako industria oparoengaitik. Gune estrategikoa hau Burdinezko Garrikoak babesten eban, Bilbo eta inguruatako hainbat herrik osotuten eben defenza lineak.

Bere kokapen eta ezaugarri geografikoakaitik, Lemoa gune estrategikoa izan zan Burdinazko Garrikoaren defensasarako: Bilbora heltzeako bide labur eta zuzena zan (17 km dagoz Lemoa eta Bilbo artean) eta Zornotzako zein Gasteizerako bideen topaketa puntua. Gainera, Lemoatx puntatik Bizkaiko eremu zabal bat ikusi daiteke eta aerieoaren mobimentuak hurretik kontrolau eitekezan. Lemoatxen garrantzia estrategikoa handiko bataila burukatu zan 1937ko maiatzaren 28 eta bigarrenaren 15a bitartean.

Garrantzia estrategikoa hau zala eta, 1937ko maiatzeko azken egunetan Arratian hainbat bataila irabazi ondoren Lemoatxera heldu ziran Nafarroako Brigada frankistak, Mola jeneralaren esanetera. Bertan, egozan zain Euskal Brigada, brigada asturiarrak eta beste batzuk, frankistak aurre egiteko. Hainbat egunetan

Baseleiza barriztu eta mendi aterpe bihurtuteko auzolandegien ostean, auzolana dago deituta lanak amaitzeko



Mikel Garcia Lemoako Gazte Teknikaria azalpenak emoten.

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

ASESORIA
Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsinoak
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



Gazteak beharrean.

Euskal Brigadak guda eremu hau euren kontrolpean mantendutea lortu baebeu be, hilaren 14an frankistak garaipena lortu eta Lemoa menpean hartu eben.

Lemoatxeko batailak ehundaka hildako eta zauritu itxi zituen Lemoatxeko hatxetan eta gaur egun hainbat aztarna ikusi daitezke: euskal gudariak egindako trintxerak, italiarrak jaurtitako bonbak eragindako zuloak, 2011n aurkitutako gerra sasoiko ustezko soldadu baten gorpua, eta abar. Mota horretako aztarnak bilatu ditue auzolandegiko gazteak.

Abuztuan ermitea mendi aterpe bihurtuko dabe

Abuztuko lehenengo hamabostaldian be, baseleiza barriztuteko mundu zabaleko beste 20 bat gazte etorriko dira "Lemoatxeko baseleiza mendi aterpe bihurtuteko asmoz. Seguru asko ez dabenez amaituko, hilaren amaieran herri auzolana dago deituta lanak jarraituteko" azaldu deutso BEGITURI Mikel Garcia Lemoako Gazte Teknikariak.

Auzolandegiak amaitutakoan, beraz, herritarrak hartuko deutsee txandea gazteai Lemoatxeko memoria errekueretako lanetan. Baseleiza hau, Lemoatxeko ton-

torrean dago eta bertan hildako frankisten omenez ereigi ei zan.

Lemoatx 1937

Lemoatx 1937 alkarteak dabil Lemoako memoria historikoa berreskuratzeko lanetan eta herritarrak eurekatz kontaktuan ipinteko moduen barri emon gura deutse. Hona helbideok:

Heldide elektronikoa: lemoatx1937@gmail.com.

Blog-a: <http://lemoatx1937.blogspot.com>.

Facebook: <https://www.facebook.com/Lemoatx1937>.

Twitter: @Lemoatx1937.

Bala-zorroak eta granada zatiak agertu dira trintxeretan



Igden

Hamabost egun honeetako goizeko 09:00etatik 13:30era, atxurra edo eskuarea eskuan hartuta ibilten da Igden gerrako lubakiak berreskuratzen urrutetik etorritako beste gazte batzuek batera. Igden Istanbuleko unibersidadeko ikaslea da eta han, administrazio arloko ikasketak egiten ditu. 22 urteko neska hau, Rodasen jatorria daukan familia baten alabea da, eta Arratian etxean lez sentiduten dala dino.

Zer dala eta etorri zara Lemoan behar hau egitera?

Hona etorri nintzan kultura barriak ezagutu gura nitalako. Hasi naz ikasten zelan bizi dan euskaldun jentea, zer jaten dauan... Ezagutu gura dodaz beste kulturak, ez bakarrik euskal kultura, Espainiakoa, Frantziakoa...

Lehenengo aldia da auzolandegi baten parte hartzean dozula?

Bai, lehenengoa da. Esperientzia hau barria da niretzat eta aprobetxatu gura dot gauza asko ikasteko. Gauza asko ikasi dodaz, dagoeneko: Espainia eta Euskadiren arteko desbardintasuna, euskerazko berba batzuk... saiatzen naz ikasten eta horretarako, batez be, jatorduak aprobetxetan dodaz.

Lan handia egin zenden lehenengo egunean!

Bai. Hasieran ez genkian zer egin, ez genkian ezta zer itxura eukan lubaki batek: basoa zan dana eta. Baina sasiak kentzean hasi ginan eta lanaldia amaitu orduko, beste itxura bat eukan inguruak. Begirale eta teknikariaren gidaritzapean laster ikasi dogu zer egin.

Zer iruditzen jatzu inguru hau?

Hemen etxean sentiduten naz. Hain inguru berdean... Eta jatekoa be antzekoa da. Etxean sentiduten naz.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

ARA MOTZ
Lanegunetan 0 Jatorrean!

OPEL

ibalgane, s. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LENDAKA (Bizkaia)
Tel. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

RUGBY TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIAKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

TXIRRINDULARITZEA

Arratiarrak Tourrean



Areatzakoak Frantzian.

Erredakzioa

Areatzako Peña Euskaltel Euskadi Iturrimorroko lagunak Frantziako Tourra dala eta Pirinioetara hurreratu ziran garagarriaren hasieran etapa bi ikustera. Euskaldunak ezin izan dabe 2013ko Tourrean etaparik irabazi, baina halanda be lan ona egin dabela dinoe peñakoak. Aurreko urteotan lez aurten be Pirinioak euskaldunnez beteta egon dira txirrindulari euskaldunak animetako, baina ez euskaldunak bakarrik, Andy

Schleck txirrindulariak Twitterren mezu hau idatzi eban "mila esker euskal zale guztiei zuen babesagatik! Munduko zale onenak zarete!! Alpeetan nahi zaituztet". Datorren urtera begira jentea animau gura dabe peñakoak "giro itzela eta lagunarte parebakoa topauko dozue" dinoe.

HERRI KIROLAK "Tubi" k txapelketa bi

Erredakzioa

Jose Martin Bustinza, "Tubi" k, Euskal Herriko Lasto Jasotze Txapelketan parte hartuko dau abuztuaren 15ean arrastiko 18:00etan Baliarrainen (Gipuzkoa). Abuztuaren 24an oster, eguerdiko 12:00etan Bilboko jaietan Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketa jokatu dau. Dimoztarra Euskal Herriko txapelduna da lasto botaten.

MENDIA

Edurra dala eta, K2ko tontorrerako saiakerea bertan behera itxi eban Alex Txikonek

Erredakzioa

Garagarriaren 25ean, goizeko zazpitan ekin eutsan lemoaztarrak K2ko tontorra zapaltzeko saiakereari, baina bost orduko eskaladea egin eta gero, bigarren kanpamentuan (6.900 m.) espejizinoa amaituzat emotea ebatzi eban, edur handia eta etenbako izotz eta harri askatzeak zirala eta.

"Bigarren kanpamentura heldu naz, indartsu nago, baina mendiak geratzeko dino: ebatzi onena ahalik eta azkarren kanpamentu nagusira itzultzea da. Eguraldi honegaz tontorrerako bideari ekitea heriotzerako bidea hartzea izan daiteke" esan eban Alex Txikonek bere blogean jasoten danaren arabera.

FUTBOLA

Arlonagusia futbol zelaiko lanak hasi dira

Erredakzioa

Lemoako Arlonagusia futbol zelaia barriztatzeko lanak garagarriaren 15ean hasi ziran eta, enpresak proiektuan azaldutakoaren arabera, 40 eguneko epean obra zibila bukatuta egongo da. Lanok 379.396 euroko aurrekontua daukie eta Lasuen Construcciones enpresek egingo ditu.

Lan honeek lurzorua bedar artifiziala jartzeko prest itxiko dabe. "Lan guztiak urri lehenengoan bukatuta egotea espero da, hola herriko futbol taldeak futbol zelaia denporaldi hasikerarako prest izango dabe" azaldu deustie BEGITURI Udaleko komunikazio sailetik. Futbol zelai honetan, Lemoa Berri eta Harrobi taldeak jokatu dabe.



Futbol zelaiko lanak aurrera doaz.

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKESOLO, S.A.
GARRAIDAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

*** KIRRU * ILEAPANDEGIA SOLARIUM**
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

Los Chopos
neurriera egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 33 (Nigar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea aitzol@coavn.org - 675 705 111

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialea E-3 Pabellona (Igorre)

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmenak: AT, A, BTT, P
Lehendakari Agirre 31 (Igorre) 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia) garantxe@euskaltel.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karnela eskolaraz zein erdoraraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: urdaul@euskaltel.net

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, 3 48530 LEZKAIA, Bizkaia
Tel: 090 482 830 fax: 090 200 717

Orde
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

NAIARA HORTZ Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober 630 743 543
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutejirrua@hotmail.com

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es www.indarsi.es

UMOR moda
sein
9-16
Agirre Lehendakaria, 27 + 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

AKETEGIA
GAV 15 LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDARIN HUGAZTARIN
ASBURURTAN
Sabino Arana, 3 Thoa. 94 673 71 41 - Fax: 94 673 64 61 - 48140 IGORRE

axular
kultur iburto
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

begitu
amala utide zerbite

SEGA



Zizurkilen jokatu zan I. Emakumezkoen Euskal Herriko Segagaitik Txapelketa.

Irati Astondoa Euskal Herriko azpitxapeladun

Erredakzioa

Bigarren egin eban Irati Astondoa zeanuriztarrak Euskal Herriko I. Segagaitik Txapelketan. 20 minututan 508 kilo bedar moztu eban arratiarrak, baina Alatzne Etxaburua zizurkildarra nagusitu jakon 568 kilo moztuta. Hirugarrenak Arrate Garinek, 458 kilo ebagi zituan.

Txapela ekarri ez arren, pozik agertu zan Zeanurikoa egindako lanagaitik. Bero handia egin eban, baina sano lan ona egin eben segalariak eta jentea "ago zabalik" geratu zan euren lana ikusita. "Bedar batzaile, zorrotzaile eta botileroen lana be oso ona izan zan eta bedarra errez ebagitekoa" dino Astondoak.

Europako txapelketa

Euskal Herriko txapelketearen os-

tean, Irati Astondoak Europako preparatan segiduko dau. "Hiru hile gogorren emoitza" izan da Euskal Herriko txapelketan egindakoa eta "Europakoan be lan ona egiteko gogoa daukat" dino. Txapelketa hau, Toblach-en (Italia) jokatu da urri lehenengoaren 7an.

Joakin Garmendiagaz apostua

68 urteko segalari beteranoak aposturako dei egin eutsan pasa dan hilean Astondoari. Garagarrilaren 27an, 21:00etan Tolosako Kantabrian eukien zitea eta hau izan zan bertan zehaztu ebena. 30 minutuko saioa izango dala Anoretan jokatu dabena hilaren 24an arrastiko 18:00etan eta bakotxak 600 euro jokatu dituala. Astondoak "entrenamentuetan toperanabil honezkeron" adierazo dau.

AUTOAK

Foronda eta Rodas irabazle Arratiako II. Rallyan

Erredakzioa

Txema Foronda eta Pilar Rodas nagusitu ziran Igorren, euren 1982ko BMW 323i autoagaz, BATzen 50. urteurreneko programan egoan Arratiako II. Rallya irabaziz. Bigarren, Iker Reketa eta Koldo Cepedak egin eben, urte bereko Volkswagen Golf GTI bategaz, eta hirugarren Aitor Villota eta Asier Isasik, Audi GT bat gidatuz.

Puntu bi (2 seg.) atera eutseezan irabazleak bigarren sailkatuak. Txema Foronda eta Pilar Rodasek hirugarren egin eben Arratiako Lehenengo Rallyan eta aurten podiumeko mailarik altuenera igo dira Iker Reketa eta Koldo Cepedari irabazi ondoren. Reketa eta Cepeda maila handiko piloitoak dira. Izan be, 2011ko Rallystoneko irabazleak izan ziran eta nazioarteko rally askotan hartu dabe parte: Montecarlo eta Portugalen, beste batzuen artean.

Hirugarrenak, Aitor Villota eta

Asier Isasi galdakaoztarrak izan ziran, igazko Rallystoneko irabazleak.

Partaidetza ona

Hamar talde eta hogetazazpi partaide egon ziralako Txomin Goti RMPVkoak (Real Peña Motorista

Vizcaya). "Sano maila oneko rallya izan zan eta partaidetza handia izan eban. Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Kantabria, Madril eta Aragoi aldetik etorrita". Proba hau garagarrilaren 13an jokatu zan, CERCA txapelketearen barruan.



Hiru auto ibilbidea egiten.

AIZKOREA

Atutxa II.a ligako lehenengo postuan

Irati Urien

2013ko Aizkolari Txapeladunen Ligako klasifikazioan lehenengo postuan dago Aitzol Atutxa dimoztarra momentuz, lau puntu-gaz. Atzenengo puntu biak Zornotzan lortu ebazan garagarrilaren 16an. Ugaitz Mugertza izan eban aurkari Atutxa II.ak laugarren jardunaldi haretan. Dimakoak erlo-

jua 26 minutu eta 22 segunduko denporan gelditu eban bitartean, Olatz-Mutrikukoak 27 minutu eta 18 segundu behar izan ebazan. Hurrengo norgehiagokea Floren Nazabal nafarraren kontra eukiko dau Bilboko jaietan, abuztuaren 22an. Bitartean, Euskal Herriko lehenengo bosten artean dagoanez, Urrezko Kopa jokatu dau hilaren 15ean Donostian.



Aitzol Atutxa.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)

KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.

URTEURRENA

Zeberrioko Undurragako ermiteak 100 urte

Erredakzioa

Zeberrioko Ergoieneko Undurraga azunean dagoan ermiteak 100 urte egin zituan, kokapen horretan, garagarriaren 31n. Dana dala, San Justo eta Pastor izenpeko ermita hau askoz zaharrago da. "Lehen goragoko "Elexatxu" izeneko landa baten egon zan 300 urte gixienez, eta 1913an ekari eben kamino ondora, orain dagoan lekura" Juan Manuel Etxebarria Zeberrioko etnografoak BEGURI azaldutakoaren arabera.

San Justo eta Pastor eguna abuztuaren 6an da, baina San Inazio egunean ospatuten dabe jaiak Undurragakoak, beti jai egunean izan daiten ospakizuna.

San Justo eta Pastor eta San Inazio

Ermitako mezatan, San Justo eta Pastor aitatzeaz gainera, San Inazio be aitatzen da eta honen ereserkia kantetan da mezea amaituteko. Orain urte batzuk, domeka askotan izaten zan mezea bertan. "Urtean zehar, modu ofizialean, ez zan beste mezarik esaten. Baina ermita honek pribilegio bat izan dau. 1947 urtean Undurragabekoa baserriko Anbrosio Etxebarria abade egin zan, gero Barbastroko gotzaina izango zana. Etxebarria abade eta gotzain zanean, ermita honetan mezea be esaten zan, parrokia kilometro bira dago eta" azaldu dau etnografoak. Ermita honetan dagoan kanpaia



Igaz urri lehenengoan auzokoak egin eben bazkaria.

Anbrosio gotzainak ekari eban Barbastrotik, hemengoa arrakalduta eta ha erabili barik egoalako.

Ermita inguruko jaiak eta kondairak

Orain dala 10 bat urte, Undurra-

gakoak urri lehenengoaren hiru-garren zapatuan ospakizun eguna ezari dabe. "Belaunaldi desbardineta auzokoak batzean gara eta herri bazkaria egiten dogu ermitan. Mahaiburuan zaharrak egoten dira eta Anbrosio gotzaina bizi zanean, berau".

Zeberrioko Undurraga auzuneak bizilagun ilustrak izan ditu: Euren ardaoagaitik ezagun egindako Txilera joandako Undurragatarrak, berbarako. Edota Miguel de Unamuno filosofo bilbotarra, "Unamuno Ugarte auzunera etorten zan umetan eta *Recuerdos de niñez y de mocedad* eta *Paz en la guerra* bere liburuetan aitatzen dau leku hau" dino Etxebarriak.

Juan Manuel Etxebarriak bere *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak* liburuan Simon Goioagari entzundako istorio bat jasoten dau. San Justoko landapean "idi narru bete urregorri" dagoala esaten dala dino Etxebarriaren informanteak.

JAIK

Auzoetan be jairik jai

Erredakzioa

Dimako Artaungoak eta Zeanuriko Otzerinmendiko sanjustoak izango dira auzuneetako lehenengo jaiak. Urtero lez, karobia biztuko dabe San Juston eta egun biko jaiak izango da. Horreekaz batera, Artaungo jaiak hasiko dira. Ondoren, sanlorentzoak edo sanlontxoak Bediako Murtatzen eta Zeberrioko Elizondon ospatuko dabez. Zeberrioganen, andramariak eta Igorren egun berean udako jaiak; sanrokeak, Dimako Olazabalen eta Bediako Eroso-Ugarten, eta sanbartolomeak, Zeberrioko Uxarren eta Igorreko Urkuzun.

Ermitetan, mezea eta barauskarriak egongo dira, trikitixearen soinuakaz alaituta, baina ermita inguru eta auzune batzuetan, jaiak egitarau potoloago daukie, Otzerinmendiko Sanjustoak, berbarako. Honeen bari zehatza 13. orrialdean dago.

Hona, dakarguz egitarau horreetako batzuk.

San Bizente Artaun (Dima)

Abuztuak 3, zapatua

19:00etan, txupina eta jaien hasikere.

19:30ean, txiburruntzia. Urdaia eta pamiatxa hurreraten diranentzat.

20:30ean, Etxebarriren idi para (Zeanuri) vs Ibarren pottoka para (Sondika).

21:00etan, Bola Txapelketea, XVI Lourdes Soraluze Saria.

22:00etan, erromeria Euskal Erromeria taldeagaz.

Abuztuak 4, domeka

12:00etan, Euskal Mezea.

13:30ean, triki-poteoa.

19:00etan, Herri kirol jaialdia.

Aizkolariak: Aitzol Atutxa, Mugertza, Lander Basterretxea, Igoritz Gisasola. Harrijasotzaileak: Urdax Magunazelaia, Jon Gisasola. Motozerrariak eta trontzalariak: Larreatarrak.

20:30ean, zozketea.

21:00etan, disko jaiak eta mozorro lehiaketea.

Abuztuak 5, astelehena

11:30ean, auzoan hildako guztien aldeko mezea.

12:30ean, Mus Txapelketea.

12:30ean, umeentzako jolasak.

17:00etan, Briska Txapelketea.

19:00etan, Tortilla Txapelketea.

20:00etan, Ugel Txapelketea.

21:00etan, amaierak eta txokolata.

San Lorentzo

Murtatza (Bedia)

Abuztuak 10, zapatua

11:00etan, mezea eta ondoren ha-maiketako eta trikitixea.

Mus Txapelketea.

17:00etan, Briska Txapelketea.

Andra Mari

Olazabal (Dima)

Abuztuak 15, domeka

12:30ean, Txakoli Eguna.

Udako jaiak (Igorre)

Abuztuak 15, domeka

10:30ean, Gazte mailako ziklista lasterketea. 36. Andra Mari Sari Nagusia. Urtekerea futbol zelaian, amaierak Agirre Lehendakari kalean.

12:40ean, barauskarria musikeagaz. Goiko plazan.

17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak bikoteka Beheko plazan.

18:00etan, Ugel Txapelketea Beheko plazan.

19:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz Beheko plazan.

Abuztuak 16, 17 eta 18

18:00etan, futbola Urbietako zelaian. Igorreko 27. Sari Nagusia.

San Roke

Bedia

Abuztuak 16, astelehena

12:00etan, mezea San Roke ermitan.

12:30ean, barauskarria, trikitixea eta jantza.

Olazabal (Dima)

Abuztuak 16, astelehena

12:00etan, mezea.

13:30ean, Bola Txapelketea.

18:00etatik 20:00etara, umeentzako jaiak.

19:30ean, Esti eta Olatz.

23:00etan, musika jai berezia txosnan.

Abuztuak 17, martitzena

12:00etan, mezea.

14:00etan, txahal zozketea.



BIHOTZEDER JAIK



Eder Atxutegi eta Beñat Etxebarria.

Beñat Etxebarriak Athleticetako kamisetak oparitu eutsan Ederreri

Erredakzioa

Areatzako ume askok penalti jaurtiketea egin eben garagarriaren 27an Areatzan, Ederren gaisotasunari gol bat sartzeako asmoz. Horrezaz gainera, beste ekitaldi asko egon ziran Ederren aldeko zapatu-domeka horretan: MG, Cauce eta Disc Breakers-en kontzertua, ipuin kontalaria, parrilladea, txosnea, zozketak... Eder Atxutegi Areatzako umea Bostonen bihotzeko ebakuntza batzuk noz egingo zain dago, Boston Children's Hospitalen, hain zuzen be. Jaiari esker batutako dirua ebakuntza honek egiteko da. Ebakuntzok zemendian izango dira.

Ipuin kontalariak *Hamar ipuin*

Ederrentzat liburuko ipuinak kontau zituan, Beñat Etxebarria Athleticetako jokalaria bere kamisetak oparitu eutsan Ederreri eta beste ekitaldi berezi asko antolatu zituen Areatzan. "Sano jai polita izan zan eta hunkituta gagoz. Antolakuntza izugarria izan zan" dino Josune Berrueta Ederren amak. Areatzako Udalak, Areatzako Kirol eta Kultur Batzordeak, Arratiako Motor Taldeak, Euskaltel Euskadi Iturrimorro Peñak, Beñat Etxebarria Lagun Arteak, Areatzako Gaztetxeak eta Gorbeako Gurutzea Athletic Peñak parte hartu eben jai solidarioaren antolakuntzan.

Enkantean Athleticetako jokalaria sinatutako kamisetagaitik 315 euro pagau ziran berbarako.

KAROBIA

Juan eta Julian Aranagaz batera Moron-eko Karearen Museokoak isiotuko dabe San Justoko karobia

Lemoako nazinoarteko auzolandegiko gazteak be hurreratuko dira San Justora.

Jon Urutxurtu

San Justoko karobia abuztuaren 3an, zapatuan, goizeko 11:00etan isiotuko da, eta urteetan zehar ahaztuta eta amatatuta egon dan ke zurixka San Justoko haretxen artean igongo da Gorbeia mendiaren tontorra bilatuz. Domeka eguerdirantza, kare bizia oka egiten hasiko da labe-agoa.

Moron de la Fronterako (Sevilla) Karearen Museotik Zeanurira

etorriko dan ordezkariak protagonismo berezia eukiko dau aurreten karobia isiotuteko ekitaldian. Kare Museo hau 2011 urtean Gizateriaren Kultur Ondare Inmateriala izentau eban UNESCOk, eta bertako arduradunak jadanik igaztik hartu-emonetan egon dira Ipizki taldeagaz aurreten San Justora etorteko eta karea egiteko prozesua bertatik bertara ikusteko.

Bestalde, Lemoan dagozan nazinoarteko auzolandegiko gaz-

teak be hurreratuko dira Zeanurira kare-labea martxan ipinteko ekitaldira.

Orain dala hamazortzi urte berreskuratu eban Ipizki Taldeak, Juan eta Julian Aranaren zuzendaritzapean, 1950etik bertan behera itxita eta hondatuta egoan karobia, eta ordutik hona abuztuaren lehenengo astegoienean martxan ipinten dabe.

Kare-labea isiotu ostean, hamaiketako egongo da San Justora hurreratzen diran guztientzat, Iñaki Arraindegiak emonda.

Bestalde, 14:30ean, auzo-bazkaria egingo da San Justoko haretxpean. Bazkari herrikoi horretan edozeinek parte hartu daike, aurretik izena emonda.

Mezea, sukalki txapelketak eta bola botaldia

Hurrengo egunean, abuztuaren 4an, domekan, erromeria ospatuko da. 12:30ean mezea izango da. Mezearen ostean maiordomoak barauskarria —ardao zuria eta gailetak— bananduko dauz jentearen artean eta jarraian paela txapelketea izango da.

Eguraldia lagun eta ohiturea jarraituz, asko izango dira da San Justoko haretxpean bazkaltzen geratuko diranak, eta arrastian 17:30etik aurrera, bola eta mus txapelketetan parte hartzeako aukerea izango dabe.



Juan Arana.

**San Justo jaiak,
Otzerinmendin abuztuaren
3an eta 4an**

**Abuztuak 3, zapatua
11:00etan** karobia isiotutea: Juan eta Julian Aranagaz batera, Moroneko

Karearen Museoko (Sevilla) ordezkariak isiotuko dabe. Isiotu eta gero, hamaiketako, Iñaki Arraindegiak emonda.
14:30ean auzo-bazkaria.

**Abuztuak 4, domeka
12:30ean** mezea. Ostean barauskarria.
14:00etan paelen aukezpena.
17:30ean Bola eta Mus Txapelketak.

BARDINTASUNA

Bardintasunaren aldeko graffitia Dimako frontoi ondoko horman

Erredakzioa

Arratiako Mankomunitadeko Bardintasun Zerbitzuak graffitia egiteko tailerra antolatu eban garagarilaren 6an, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Dimako Udalaren laguntzeagaz. Honen emoitzea Dimako frontoi ondoko horman ikusi daiteken irudia da, "Elkar ezagutuz" programako gazteen eta Dimako gazteen artean egindakoa. Irakaslea, Eva Mena graffitari ezaguna izan zan.

Tailerraren ardatza Beldur Barik programea martxan jarrea izan da, hau da, gazteen artean desbardintasun egoerak detektatu eta aurre egiteko sensibilizazio programeari hasikerea emotea, gazteen artean Beldur Barik zer dan zabaldu eta lehiaketan parte hartu daie. "Graffiti tailerragaz, helburu bi bete doguz: batetik, Beldur Barik kanpaina martxan jarrea, eta, bigarrena, "Elkar ezagutuz" programearen bitartez, gazteak alkar ezagutzeko aukerea izatea" azaldu deutso BEGITUri Miren Urresti Mankomunitadeko Bardinta-

sun teknikariak. Guztira, 9 gazte izan dira tailerlean parte hartu dabenak, zazpi neska eta mutil bi, Arratiako eta 12-18 urte bitartekoak.

Hurrengo Zeanurin

Eva Mena graffitariak gidatu zituan lanak. Taileraren hasieran gazteak teknika azaldu eutsen, norik zer egin behar eban antolatu eta egin beharrekoak bideratu zituan. "Lau ordu izan eben esandako guztia egiteko eta balorazioa guztiz positiboa da, bai partaidetza aldetik eta baita emoitza aldetik be, lan ederra egin ebelako, eta ikusgai dago Dimako frontoi ondoko horman" dino Urrestik.

Hurrengo homairudia Zeanurin gauzatuko da, eskola aurreko horman, urri lehenengoaren 28an 10:00etatik 14:00etara, formatu berean. Han be bardintasunari lotutako irudia margoztuko dabe gazteak. Hamabi eta hamazortzi urte bitarteko Arratiako edozein gazte parte hartu leike tailerlean.



Akats zuzenketea

BEGITUREN 189 zenbakian, "Lemoatxeko lubakiak errekupearuko dabez munduko gazteak" izenburuko informazioan akatsa egon zan. Holan, Lemoatx 37 ipinten dauan bakotxean Lemoatx 1937 ipini beharko leuke, horixe da-eta, alkaterearen izena.

www.begitu.org

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

begitu
arratia ubide zeberio



AGENDEA

ABUZTUAK 1 LEMOA

Herriko jaiak. Ikusi egitaraua BEGITUEN 189. zenbakian.

ABUZTUAK 2 DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" Herrirak antolatutako errepresaliaduen aldeko konzentrazioa herriko plazan.

ABUZTUAK 3 DIMA

San Bizente jaiak Artaunen. Ikusi egitarau 12. orrialdean.

ZEANURI

San Justo jaiak Otzerinmendin. Ikusi egitaraua 13. orrialdean.

ABUZTUAK 4 LEMOA

17:00etan Alkartasun jaia. Giza eskubideak. Irtenbide. Bakea. Lemoako jaietan preso eta iheslariak herrira. Herritaron Epaia ekimen ibiltaria eta Herrira denda. Herrirak antolatuta.

ABUZTUAK 10 BEDIA

San Lorentzo jaiak Murtatzen.

ABUZTUAK 13 ZEANURI

Herriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ABUZTUAK 15 DIMA

12:30ean, Txakoli Eguna Olazabalen.

IGORRE

Udako jaia. Ikusi egitaraua 12. orrialdean.

ABUZTUAK 16 BEDIA

12:00etan, mezea San Roke ermitan eta ondoren barauskarria, trikititxia eta jantzak.

DIMA

Sanrokeak Olazabalen. Ikusi egitaraua 12. orrialdean.

IGORRE

18:00etan, 27. Sari Nagusia. Arratia-Amorebieta futbol partidua. Urbieta zelaian.

ABUZTUAK 17 AREATZA

Sendabedarrak berbaldi-tailerra Gabriel Vazquezzen eskutik.

IGORRE

18:00etan, 27. Sari Nagusia. Getxo Arenas-Durangoko Kulturala futbol partidua. Urbietan.

ABUZTUAK 18 IGORRE

18:00etan, 27. Sari Nagusia. Futbola. Finala Urbietan.

ABUZTUAK 23 AREATZA

Herriko jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

ABUZTUAK 24 IGORRE

San Bartolome jaiak Urkuzun.

ABUZTUAK 29 ZEBERIO

Herriko jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ABUZTUAK 30 LEMOA

19:30ean hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

ZEBERIO

20:00etan hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.



Zeanuriko txistulariak 45 urte

Hilaren 15ean, 22:00etan, frontoian, Dantza Kantatuaren ikuskizuna egingo dabe Zeanuriko txistularien 45. urteurrena ospatuteko. Zeanuriko jantzari, abesbatz, eta hainbat musika tresna jotzailek (dultzainajotzaile, trikitilari, soinulari, eta abarrek) parte hartuko dabe txistua ardatz izango dauan ikuskizun honetan.

Taldearen ibilera 1967ko urri lehenengoan hasi zan, 67-68 ikasturtean hasi ziran-eta txistu-eskolak jasoten 9-16 urte bitarteko neska-mutilak, Jose Felix Zamakona irakasle zala. Gaur egun, 30-60 urte bitarteko 12 txistularik osotuten dabe taldea.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

BASERRIA SALGAI

Zeberion baserri-bainuetxe barrizatuta salgai. 320.000 euro. Gorbeia Parkearen barruan kokatuta. Biziteko moduan. Telefonoak: 94 648 15 90 eta 609 568 453.

TXAKURKUMEA SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz. Artzai txakurrak dira. 25 eurotan zure esku! Telefonoa 616 440 185.

ETXEA SALGAI

Babes Ofizialeko pisua salgai Areatzan. Aukera ezin hobea Arratian biziteko. 3 logela, bainu bi, sukaldia ipinita, saloia, garagea eta trasteleku. Nerea 674 798 984.

MODULO SALGAI

Moduloa saltzean da. 3 logela. Santillana del Mar kanpenean kokatuta. 16.000€. Telefonoa 606 772 896 (Mari Cruz).

DANERIK

BIZIKLETEA GURA DOT

Errepidean ibilteko bizikletea gura dot. Zaharra eta merkea bada, barria eta karua baino hobeto. Idatzi: sautuolabarri@gmail.com helbidera.

ALTZAIURAK BEHAR DOGUZ

Dimako gaztetxoan lokalean altzairuak behar doguz: sofak, mahaia, apalategiak... Baten batek botateko edo sobran badaukaz deitu telefono honeetara: 680 207 565 edo 634 401 026.

DESBROZADOREA BEHAR DOGU

Baten batek erabili barik badauka ipini kontaktuan mesedez. Bardin da zaharra bada. Eider: 685 70 71 76 orekatuarte@gmail.com.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

2102ko Gorbeia Suzien mendi-lasterketako kamiseteta.


Maidar Agesta (Artea)
Janire Aierdi (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 11 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Gertaera. 2.- Oxigenoa. Herri handi. Sufrea. 3.- Suagaz batera. Bokala. Errepetiduta, kontuz. 4.- Bokala. Juntagailua. Uranioa. 5.- Eskubehar. 6.- Greziako mitologian, Urano eta Gearen alaba. Umea izan dauan andrea. 7.- Gizona izanda, bere gurasoen alaba. 8.- Komunikabide mota bat. 9.- Egunkari bat. Edabe garbi.

GOITIK BEHERA

1.- Portaera. Bostehun erromatar. 2.- Bokala. Bigarren bokala. Sail, moltso. 3.- Persona izenordaina. Garraiatu hona. 4.- Eutsi, lotu. Modua. 5.- Omen. Gurasoak izan daberen andrazko umea. 6.- Konsonantea. Bokala. Ama bihurtu. 7.- Pisutsua. Iridioa.



Topau katu arrazen zazpi izen.



AKI MI KO

Iman Olatu



Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kaltetetxakoa, herrikoa

Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilegoak, Hezkuntza zikloak

946 319 008
658.195.091

GALANTA

zure barruko arropa

M. JOSE

barrutik janzen zaitu

Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es

www.facebook.com/galantabiz

Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketeta

Elxalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

RIKARDO LAMADRID INTXAURRAGA

"Arraunera lehenengokoz joan eta sekulako engantxadea izan zan niretzat"

Rikardo Lamadrid irakaslea da ofizioz. Kirola dauka afizino ostera eta zeozer desbardina probau guran arraunari ekitera animau zan. Elantxoben hasi eta arraunkadaka Kaikura heldu da Igorrekoa. Bosgarren urtea daroa trainera gainean. San Miguel Liga amaituteko hile t'erdia geldituten da, eta taldea sano maila ona erakusten dabil. Tartean, 2013ko Bizkaiko txapelkun gelditu dira Lekeition. Kontxako Bandera aurten biziko dau lehenengoz, eta parte hartuko dauan ez badaki be gustauko litxakiola kontau deutso BEGITURI. Beste kontu askoren artean, Jose Luis Kortaren gainean be egin dogu berba beragaz.

**Irati Urien****Zelan murgildu zinan arraunen munduan?**

Irakaskuntzako oposaketak gainditu ostean, gauzak eta bai kirola bera be aldatuteko gogoia euki neban. Lekeitioko antzarretara joan ginanekeo baten, arraunlari izandako bategaz egin neban topo. Apostua egin genduan orduan. Berak "ni Lekeitioko Isuntza taldean hasiko naz!" esan eustan, orduan nik erantzun "ba ni Elantxoben!". Ni hasi nintzan, baina bera ez. Eta holantxe. Lehenengokoz joan eta sekulako engantxadea izan zan niretzat. Sikuan egin neban proba, zulo moduko baten. Piloa gustau jatan. Igor Astondoa be nigaz joan zan, baina eukan beharra zala eta, nik bakarrik jarraitu neban.

Kaikura egin zenduan saltoa gero.

Bai. Igaz Elantxoben nahiko denporaldi ona egin genduan. Gure ligan laugarren gelditu ginan, beheko ligan dan KAE2-tik KAE1era igon ginan. KAE1-ean nahiko ondo ibili ginan eta horren ondorioz, Kaikuko medikuaren dei bat izan neban. Kaikun proba egiteko esan eustan eta nik pozik emon neutsan baiezkoa. Jose Luis Kortagaz egin neban berba orduan telefonoz, eta geroago Berrizen gelditu ginan. Proba egin eta ekipoan sartuko nintzan edo ez ebatziko ebalua esan eustan. Proba hori egin eta gelditze-ko esan eustan.

San Miguel Ligan da momentu**honetan jokaturen zabiziena. Nozdik noz arte da?**

Bagilan hasten da, eta urri lehenengoaren erdirantza amaituten da. As-tegoienero izaten da, zapatu arrastiz eta domeka goizez.

Zelan baloretan dozu Kaikuren aurtengo denporaldia?

Aurten maila oso altua dago aurrekoak konparautu, konpetitibitate gehiago dago. Bai beste arraun taldeak eta bai taldean barruan taldekideak. Konpetentzia beste maila batekoa da postua irabazteko, gogorragoa. Hasieran suete txar apur bat euki dogu baina ondo gabiz, maila onean.

Elantxobetik Kaikura, igartzen da alderik mailari jagokonean?

Bai, handia. Elantxobe bigarren mailako taldeen artean umilenerikoa zan baliabide aldetik, eta Kaiku San Miguel Ligako potentetenerikoa da. Saltotoxa izan da orduan. Hasieran moldatutea kostau jatan. Gainera urtail parean bajoi fisiko moduko bat euki neban, eta azkenean exijentziak...

Esan leike Kontxako Bandera dala estropadarik ezagunena. Bertan arraun egitea gustauko litxakizu?

Estropada hori San Miguel Ligatik kanpo dago eta zelan aurten sartu nazan Kaikun, aurten tokauko jata egotea. Ez dakit arraun egingo ete dodan, hori gatxa izango da. Seguruenik igaz parte hartu eban talde bardina joango da aurten, oso potentea da eta. Gustauko litxakit

bertan egotea. Azken baten arraun munduan arraunlari baten palmaresa horregaz neurtuten dala esan leikegu. Zenbat Kontxa irabazten dozuzan, palmaresa be altuagoa da. Arraunlari bat esateko ona edo txarra dan "Kontxa bi daukaz, lau Kontxa daukaz, edo zazpi Kontxa daukaz" esaten da.

Zer eskatuten dau traineretan ibilteak?

Denpora asko, dedikazio maila oso altua denpora aldetik. Gero fisikoki preparazioa oso gogorra be bada. Denpora asko sartu behar da, eta sartzean dozun denpora hori gogorra izaten da. Entrenamentu gogorak, luzeak... Entrenamentuok progresiboki doz, gitxiagotik hasita gero eta gehiagora.

Zelan eta zenbatero entrenetan dozu?

Sestaora joaten naz. Hasieran, zemendi bueltan hasten garanean egun batzuk hara joaten gara eta beste batzuk gimnasioan edo, adibidez arinetan bada, bakotzak bere herrian egin leike. Baina zezeiletik aurrera egunero joan behar izaten naz Sestaora. Egun bat baino ez daukagu "atsedenaldi aktiboa" deitzen dana; horrek zera esan gura dau: arinetan egin, bizikletan ibili, mendira joan edo dana dalakoa. Geldirik egon egun baten be ez. Jateko orduan be exijiduten dau. Ez dago dieta edo erregimenik. Jaten dozun dana asko jan zeinke baina garbi: orio barik, gatz barik, ogi gitxi, gauzak plantan...

37 urte daukazuz. Beste kirol batzuetan beteranotxoa izango zinake. Zein da arraunen batzuetan besteko edadea?

Hemen nire antzekoak dira gehienak. Adina nahiko altua da, batzuetan bestekoan. Gazte batzuk be bada-goz, fisikoki oso onak diranak. Oso gazteak diranak kantsau egiten dira, errendimentu aldetik ez dirala hain onak izaten esan gura dot. Gaur egun ekiporik onenetan, 40 urtekoen bat egotea oso normala da.

Jose Luis da zure taldeko entrenatzailea. Ezagutu dozu "el Korta verdadero"? Zelangoa da?

Kaikun ibili orduko be beti ikusi dot El Conquistador del Fin del Mundo, eta esaten neban "joe tipo hau la ostra izan behar da". Programan papel bat egiten dau momentu batzuetan, baina gero arraunen ikusten dozu eta holan dagoanean zoroaren pare zarataka hasten da. Entrenamentuetan txakur arpegigaz, "ez dozu ezetarako be balio, lelo, gilipollas, bata eta bestea" esaten ibiltzen da denpora guztian. Gero entrenamentua amaitu eta adibidez hoteletan egon garan estropadetan eta desbardina da, beti brometan. Hori bai, arraunlariak zaindu egiten dauz, asko arduratuten da eurakaitik. Kontua da ardura hori transmitiduteko erea txarra dala, pedagogia aldetik oso gogorra. Halanda be, entrenadore moduan euki dodan onena

da. Asko daki arraunari buruz, neurriak, itsasoa, olatuak, korronteak... Azken baten 64 urte daukaz eta beti bizi izan dau arraunen mundua.

Kirol honek ez dauka beste batzuetan besteko lekurik hedabideetan, EITB-tik egindako emisinoak lagunduten deutso?

Bai EITB sartu zanetik bultzakada handia izan dau. Kontua da mobimentuan goazela baina itsasotik, orduan baliabide aldetik kamarak eta oraindino... hutsune bat dago hor. Ibili ziran EITB-koak sistema erdi birtual erdi erreal bat garatuten, baina oso karua zan. Telebistan ikusten dana oraindino hobeto ikustea falta da; arraunlarien arpegiak, keinuak...

Non kokatuten zara traineruan?

Ni patroia ipinten dan lekutik aurrantza begira eskuma aldean nago, istribor esaten dan horretan. Eskoietara edo ezkerretara egotea normalean beti mantenduten da. Entrenadoreak ebazten dau traineruko zein lekutan ipini albo bakotxean: bigarrenan, hirugarrenan... pisua eta potentziaren arabera.

Arratiako arraunlari bakarra zara antza danez. Kurioso da, ezta?

Bai, nik dakidala. Kostaldakoa ez dan jentea arraunen joan dana egon badago, beste lurralde, eskualde edo bailara batzuetakoak baina Arratiakorik ez dot uste dagoanik arraunen.

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

**Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com**

